

Ebazpena: R 34/2023

Espedientea: 14/2017

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, CQWSLren zerga-egoitza 1978ko abenduaren 5etik aldatzeaz zehazki. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 14/2017 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- CQWSL 1978ko abenduaren 5ean eratu zen, NSA izenarekin eta egoitza Laudion (Araba) zuelarik. 2001eko urrian erantzukizun mugatuko sozietate bihurtu zen, eta izena aldatu zitzaion: CQWSL. 2016ko azaroaren 29an, NPSLUK xurgatu zuen CQWSL, eta egun berean, sozietate-izena aldatu eta FPPSSL jarri zitzaion.

2.- Objektu soziala da enpresei eta partikularrei oro har kudeaketa-, administrazio-, zuzendaritza- eta aholkularitza-zerbitzuak ematea; kimikaren

arloko ikerketa egitea, pigmentuen adarrean, eta balio higigarrien eta higiezinaren merkataritzan aritzea.

Jarduera nagusia taldeko enpresei zerbitzuak ematea da, zehazki, kudeaketa, administrazio, zuzendaritza eta, oro har, aholkularitzarekin lotutako zerbitzuak ematea enpresei eta partikularrei; kimikaren arloko ikerketa eta garapena, batez ere pigmentuen adarrean; eta estatuko eta atzerriko beste entitate batzuen kapitaleko partaidetza zuzentzea eta kudeatzea, kasuan kasuko giza baliabideak eta baliabide materialak antolatuz, eta entitate horiek zuzentzea eta kontrolatzea haien administrazio sozialeko organoetako kide izanez.

Jarduera horiek egiteko, administrazio-zentro bat eta laborategiak ditu Bartzelonan.

3.- Administrazio Kontseiluko kideak eta ahalordedunak lurralde erkidean bizi dira, egoitzaren datua ezaguna den kasu guztietan.

4.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian jasota dagoen egoitza soziala Laudioko B kalea da, eta jarduera-egoitza, berriz, Bartzelonako G kalea. Kotizazio-kontu nagusiaren egoitza Bartzelonakoa da, eta bigarren mailako beste kontu bat Laudiokoa. Sozietateko langile guztiak Bartzelonako zuzendaritzari atxikita daude, Laudiokoari atxikitako pertsona bat izan ezik.

ZAEAk bisita egin zuen Laudioko B kalera, eta egiaztatu zuen ez zegoela CQWSL identifikatzeko panelik.

5.- CQWSLk 1988ko maiatzaren 27an eman zuen alta jardueren erroldan, eta zerga-egoitza gisa aitortu zuen Laudioko V kalea. ZAEAk egoitza horretako instalazioak bisitatu zuen, eta egiaztatu zuen instalazio horiek NPSL enpresari dagozkiola, eta pabiloi bakarra dagoela CQWSLrekin partekatuta; NPSLk ez du fakturatu instalazioen alokairuagatik; CQWSLko langile bakarra dago instalazio horietan, gainerako langileak Bartzelonan daude; egoitza horretan ez da kontabilitaterik

eramaten, ez dira urteko kontuak egiten, ez da fakturarik igortzen ez jasotzen, ez da lan-kontraturik egiten eta ez dago erregistro-libururik; administrazio-kudeaketa Bartzelonako lantokitik eramaten da; Laudioko instalazio horietatik aholkularitza informatikoa ematen da eta Bartzelonatik kudeaketa eta ikerketa egiten da; instalazioetan NPSLren izena baino ez da agertzen, eta postontzian, *N* bakarrik.

6.- CQWSL jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoen jarduera guztiei dagokienez, horiek burutzeko lekutzat Bartzelona zehaztu da:

- 842. epigrafean (finantza- eta kontabilitate-zerbitzuak), jasota dago 2001eko urtarrilaren 1ean hasi zuela jarduera, Bartzelonako A kalean, eta 2015eko uztailaren 1ean, jarduera hori gauzatzeko lekua aldatu zuen, L'Hospitalet de Llobregateko (Bartzelona) P kalera.

ZAEAk bisita egin zuen Bartzelonako A kalera, eta ikusi zuenez, enpresen postontzietan eta direktorioetan CQWSL ageri bada ere, CQWSLk ez du instalaziorik eraikinean; eta NIK, zeina eraikin bereko etxabea baitago, jakinarazi zuen CQWSL 2015eko urtarrilean L'Hospitalet de Llobregateko (Bartzelona) P kalera lekualdatu zela, eta ebidentzien arabera, azken helbide horretan duela jarduera-egoitza: sarbide-hesian VHEM identifikatzen duen plaka bat duen postontzi bat dago; CQWSLko ordezkari sindikalak hautatzeko informazio-oharrak.

- 936 epigrafean (ikerketa zientifiko eta teknikoa), jasota dago 2001eko urtarrilaren 1ean hasi zuela jarduera, Bartzelonako A kalean; eta 2007ko azaroaren 2an, Bartzelonako G kalea ageri da jarduera hori burutzeko leku gisa. 2016an, jarduera hori egoitza horretan egiten zuela baino ez dago jasota. Hala eta guztiz ere, egindako jarduketetatik ondorioztatzen da WHEN ez dagoela helbide horretan, 2015. urtearen hasieran egin baitzuen alde bertatik.

7.- CQWSLk aurkeztutako deklarazio informatiboetan, Bartzelonan bizi den abokatu bat aipatzen da harremanetarako pertsona eta telefono gisa. Abokatu horrek, era berean, Bartzelonan egoitza duen eta CQWSL bezero zuen bufete batentzat lan egiten du.

CQWSLren eragiketak protokolizatzen dituzten notario guztiak lurralde erkidekoak dira.

8.- CQWSLren kontsumo guztiak Bartzelonan egiten dira; banku-kontuak, bat izan ezik, Bartzelonako sukurtsaletan ireki dira, eta haietan esku hartzeko baimena dutenek Bartzelonan dute bizilekua, Madrilen bizi den pertsona batek izan ezik. Horrez gain, haien ibilgetua Bartzelonan zegoen.

6.- 2016ko maiatzaren 16an, ZAEAk CQWSL enpresaren helbidea aldatzeko proposamena jakinarazi zion AFARI, 1978ko abenduaren 5etik aurrerako ondorioekin.

7.- Ekonomia Itunaren 43. artikuluan ezarritako lau hilabeteko epea igarota, AFAk ez zion proposamenari erantzun, eta ZAEAk 2017ko ekainaren 2an aurkeztu zion gatazka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeari.

8- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da AFAk alegazioak egiteko eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. AFAk izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin du ZAEAk proposatutako egoitza-aldaketa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena dauka, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, berari esleitzen baitio *Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea*.

2.- Amore ematea

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, ZAEAk amore emateak, GFAk egindako helbide-aldaketaren proposamena onartuta, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, AFAk amore eman baitu NPSLek xurgatutako CQWSLren egoitza Bartzelonako probintziara aldatzeko ZAEAk egindako proposamenari dagokionez, 1978ko abenduaren 5etik 2016ko azaroaren 29ra arteko atzeraeraginarekin.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta FPPSSLri jakinaraztea.